

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Rol aldaketak?

Eusko Jaurlaritzak 1986an hiru pelikula ekoiztu zituen: *Ehun metro*, *Hamaseigarrenean aidanez* eta *Zergatik Panpox*. Bakarrak ere ez zuen ordubete gainditzen, eta telebistarako produktu bezala ezagutu ditugu batez ere. Eta Anjel Lertxundik, idatzi eta zuzendu zuen *Hamaseigarrenean aidanez*-en, euskal aktoreekin euskaraz aritzeko hautu garrantzitsua egin zuen film duin bat eskaintzeaz gain. Hori xe gogoratu dugu lehenik EITBk eta Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko politika berria zehazteko asmoa agertu dutela jakitean. Hemengo zinemagintzaren eta ikus-entzu-

FORTA-KOEN AHOLKUAK

Fikzioaren kodeak landuz

FORTA (Irrati-telebista Erakunde Autonomikoen Federazioa) erakundeko kideek, nonbait, araudi bat osatu zuten iaz diruz lagundu beharreko telefilmizat. «Familia osoarentzakoak», «klase ertaineko jendearen ikuspegitik eginak» eta «amaiera zorionsukoak» behar zuten telefilmok. Asko hitz egiten dugu, bai, AEBetan iazko irailaren 11ko gertakizunen ostean fikzioa kontrolatzeko egindako urratsei buruz. Eta Euskal Telebista FORTAko kide da.

nezkoen industria bultzatu nahi dutela entzuten dugunean horixe baitatorkigu akordura, hizkuntzaren hautua oso garrantzitsua dela, alorreko profesionalen euren ekarpena egin ahal izateko aukera eskaintzea garrantzitsua den bezalaxe. Eta telebista ikus-entzunezkoetarako harrobi ederra ere izan daitekeela frogatua dagoenez, aldatuko ote da batere EITBren rola alorrikoko? Aldatuko ote ditu bere harreran, adibidez, ekoiztetxeekin? Eta ekoizpen propioan duen funtzio bera izango ote du fikzioak ikus-entzunezko politika hori definitu ostean? Formula, tematika, apustu berriak ikusiko al ditugu?

Adi egoteko kontua, arraioa, herenegun aurkeztu zigitena.

LABURAEAN

Vivendik Telepiu plataforma saldu du mila milioi euroren truke

Vivendi Universal hedabide talde frantziarraren egoera ekonomikoa ez zen batere ona duela hilabete batzuk, baina salmenta batzuen bitartez zorrak kitatzen ari dira. Azkeneko salmenta Telepiu plataforma digitalarena izan da. Rupert Murdoch saldu diote ordainezko telebista mila milioi euroren truke. Jean-Rene Fourtou Vivendiko presidentea 4.300 milioi euro lortu ditu azken hilabeteetako salmentekin.

Espainiako Gerraren memoria berreskuratu dute SER irratiak entzuleek liburu batean

Iñaki Gabilondo esatari donostiarrak SER irratiaren zuzentzen duen *Hoy por hoy* irratsaioan, Espainiako Gerraren istorioak jaso zituzten iazko irailetik aurtengo ekaina bitartean. Testigantza horiek *Los años difíciles* liburuan bildu ditu Carlos Elordi kazetariak. Aste honetan aurkeztu du liburua Aguilar argitaletxeak, pertsona anonimoen gutun, poema eta testigantza hunkigarriekin.

'Versión española' saioaren bosgarren denboraldia hasiko da gaur gauean La2n

Cayetana Guillen Cuervok aurkeztzen duen *Versión española* zinema saioa La2ko programaziora itzuliko da gaur (22:35ean). Bosgarren denboraldiko lehenengo saioan, Donostiako Zinemaldiaz eta hainbat filmez hitz egingo dute. Jarraian *Plenilunio* filma emango dute. Eta solasaldian Imanol Uribe, Antonio Muñoz Molina eta Miguel Angel Sola emango dira.

ETB1. 'Betizu Gala' eskainiko dute gaur gaueko 21:00etatik aurrera



ETB1. Betizu Taldea osatzeko lehiakideetako batzuk. Gaur kantuan arituko dira ETB1ek emango duen galan.

Izar berrien bila

Betizu Taldea osatuko duten lehiakideak aurkeztuko dituzte gaurko programan

Erredakzioa | DONOSTIA

Betizu Taldea osatuko duten lehiakideak aukeratzeko lehen *BT Gala* emango dute gaur 21:00etan, Unai Iparragirrek aurkeztuta. Ekitaldi horretan hogeitun lehiakideak aurkeztuko dituzte eta lehen lau kanporatuak ezagutuko dituzte ikus-entzuleek. Ken Zazpi eta Gozategi taldeek eta Kontxu Odriozola aktoreak animoak emango dizkiete partaideei.

Euskal Telebistak Betizu Taldea osatu nahi du eta horretarako goi mailako lau artistaren bila dabil. Uda aurretik egin zu-

ten Betizukoek *casting* handi baterako deialdia. Ehunka dei jaso zituzten eta lehen aukeraketa etorri zen. Ehunka horietatik 250 neska-mutil inguru joan ziren euren dohainak erakustera. Apurka-apurka kopuru hori gutxituz joan dira, hainbat proba egin ostean. Azkenik, 20 gazte gelditu dira Betizu Taldea osatuko duten lau lagunetako bat izateko lehian.

Neska-mutikoak astelehenetik ostiralera jarraitzeko aukera

Lehia gaur hasiko da ETB1-en ikusi ahal izango den gala berezian. Bertan azken txanpara iri-

tsi diren 20 artista horiek ezagutu ahal izango dira. Kantuan arituko dira guztiak eta sorpresa ugari egongo dira.

Epaimahaian hiru kide egongo dira 20 neska-mutilen saioak neurtzeko: Lur Korta dantza irakaslea, Joxe Mendizabal kantu irakaslea eta Lorea Perez de Albeniz *Betizu Taldea: Castinga* tartearen aurkezlea.

Pasioa, dibertsioa, emozioa, eta goi-mailako artistak ikusi ahal izango dira gaurko saioan. Beraz, datorren astetik aurrera, astelehenetik ostiralera Betizu Taldeko lehiakideen jardura jarraitu ahal izango da, 19:00etatik 20:30eara Iban Garatek aurkeztutako *Beti Zuzenean* saioan. Abenduan, azkenik, Betizu Taldea osatuko duten lau kideak zein diren jakingo da.

EITB



Juan Jose Ibarretxe.

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkura irrati, telebistaz eta Internetez

Erredakzioa | DONOSTIA

EITB taldeko irratiak, ETB2 kateak, nazioarteko kanalak eta eitb.com webguneak zuzenean emango dute gaur Eusko Legebiltzarreko osoko bilkura.

Goizeko 10:00etan hasiko da bilkura eta ETB2n Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hitzaldia entzun ahal izango da. Maria Francisca Fernandez Vallesek gidatuko du emanaldia. Bilkura arratsaldeko 15:30ean jarraituko dute, gainerako alderdi politikoetako bozeramaileen jardunarekin.

Komentarista ezberdinak irratiak emanaldietan

Euskadi Irratian goizeko 09:30ean hasiko dute Gasteiztik programa berezia. Komentarioak egingen Kepa Aulestia eta Jose Antonio Rodriguez Ranz izango dira. Alderdietako bozeramaileak elkarriketatuko dituzte egunean zehar. Radio Euskadin, berriz, Maite Mayo, Itziar Espina, Iñaki Gomez eta Fermin Alberdi egongo dira bilkuraren jarraipena egingen.